

Norberaren garuna jardunean ikustea posible da


HAINBAT LABORATEGIK Mind-Mirror sistema sortu dute garunaren jardura ikusteko. Sistema horretan bi teknologia motak egiten dute bat: errealitate areagotuko teknikak eta denbora errealeko elektroentzefalograma teknikak (EEG).

Hainbat patologia aztertzeko edo berreziketan erabiltzeko balio duen sistemaren funtzionamendua honelakoa da: erabiltzaileak elektrodoak dituen EEG kaskoa kokatzen du buruan, eta 3D kamera batek haren irudia erakusten du monitore batean.

Elektrodoek hartzen duten garun-jardura, monitorean erabiltzailearen irudiaren gainean zehatz-mehatz kokatuta dagoen garun birtual batera proiektatzen da. Horrela, erabiltzaileak bere aurpegiaren gainean garun bat ikusten du, eta kaskotik bidalitako informazioak eragiten dituen kolore aldaketak ere bai.

Sistemak denbora errealean funtzionatzen duenez oso garbi nabaritzen dira lasaitasunaldiak, edota mota bateko zein besteko pentsamenduekin bat egiten dutenak.

Oraingoz medikuntza-aplikazioak izango dira teknika horren helburu nagusiak, baina bidea berehala zabaltzea espero da, norberaren emozioen kontrolerako heziketan adibidez. ■



JENS LANGNER



Marrazoen antigorputzak, giza minbizietan aplikagarri?

ALBERT KOK-CC BY SA



MARRAZOEK urea kantitate handia dute odolean eta horrek ur gaziko ingurunean gerta daitekeen desidratazioa eragotzen du. Gizakiaren kasuan, aldiz, odolean urea sortzeak antigorputzak suntsitzen ditu.

Hainbat ikerlari marrazoen antigorputzak aztertzen ari dira, urea dagoen inguruan irauteko mekanismoa ezagutu nahian, eta badirudi

di zenbait aztarna aurkitu dutela. Zehazki, antigorputzetan detektatutako sodio kantitate handia. Mekanismo hori ugaztuenengan aplikatzen hasi dira eta oso emaitza onak lortu dituzte orain arte, laborategian bederen. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ununseptioa, taula periodikoaren 117. elementua

Gaztetan ikasitako elementuen taula periodikoa ez da behin betikoa. Noizean behin elementu berriak aurkitzen dira, kasu honetan bezala. Egiazki, 2010ean egindako aurkikuntza berretsi besterik ez dute egin. Ununseptioak, bere gisako elementu super-astun guztiek bezala, milisegundo batzuetako bizitza besterik ez du.

ttiki.com/64833
(Euskaraz)

Izotz galera izugarria Antartidaren mendebaldean

Antartidaren mendebaldean izotz zati handiak galtzen ari diren sei glaziarrek osorik urtuko balira, itsas mailak 1,2 metro egingo luke gora. Glaziar horiek urte batzuk daramatzate izotza galtzen, baina azken bi urteotan azkartu egin da kontinentearekiko bereizketa.

ttiki.com/64834
(Gaztelaniaz)

Aire kutsadura haztearen eta alergien arteko lotura

Kutsadura atmosferikoak udaberrian dituen hazkundeak, polena kantitate handietan garraiatzeaz gain, haren egitura ere eralda dezake, eta horrek alergiak areagotzen ditu. Izan ere, polen aleak txikiago bihurtu daitezke, eta ondorioz errazago sartzen dira geure arnas aparatuetara.

ttiki.com/64835
(Frantsesez)